

**EGEF JARDUNAK, ARABAKO FORU ALDUNDIA.-  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGEF 2014-2020  
PROGRAMA ERAGILEA**



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako  
Europar Funtsa (EGEF)  
"Europa egiteko modu bat"

**EP1. Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea**

OE. 1.2.1. Enpresek zuzentzen dituzten I+B jarduerak bultzatzea eta sustatzea, eta enpresa berritzaileak sortzeari eta finkatzeari eta erosketa publiko berritzaileari laguntza ematea.

**AFA-07. ENPRESETAN KUDEAKETA AURRERATUARI LAGUNTZEA**

**Azalpena:**

Enpresentzako laguntza programa, kudeaketa aurreratuaren ereduaren ildoko kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzeko; hau da, enpresen lehiakortasuna hobetzen duten proiektuei laguntzeko.

**Gauzatzeko egutegia:** 2018-2020

**Finantza alderdiak:**

Inbertsioa, guztira: 260.535,90 euro

EGEFen baterako finantzaketa (% 50): 130.267,95 euro

**Arduraduna:**

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila - Ekonomia Garapenaren Zerbitzua

**2014-2017 burutzapenaren adierazlea:**

CO01 (laguntzak jaso dituzten enpresa kopurua): 0

2018ko deialdia:

Onuradunak dira 5 eta 49 langileren artean dauzkaten Arabako enpresak, zeinek Euskalitek eginiko hasierako kontraste txostena baitaukate indarrean eta zeinek aurkezten baitute kudeaketa aurreratuko ekintza plan zehaztu bat, kudeaketa arloko proiektu finkatu bat jasotzen duena, kontraste horretan identifikaturiko hobekuntza arloekin bat etorritik.

Diruz laguntzeko moduko jarduerak dira kudeaketa aurreratuko hasierako kontrastearen txostenari erantzuten dioten eta erakunde eskatzailearen kudeaketa aurreratuko ekintza planean jasotzen diren finkatze proiektuak (2B proiektuak) garatzea. Finkatze proiektuak (2B) eremu hauetakoren bat hobetzera zuzenduta egongo dira: estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak.

Laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuko gastuen % 60 da, enpresako 7.200 euroko muga izanik. Laguntza programa EGEFekin batera dago finantzatuta % 50ean, Euskal Autonomia Erkidegoko EGEF 2014-2020 Programa Eragilearen barruan.

Foru dekretu honen ALHAOko esteka:

[http://www.araba.eus/botha/Boletines/2018/045/2018\\_045\\_01428\\_C.pdf](http://www.araba.eus/botha/Boletines/2018/045/2018_045_01428_C.pdf)